

## 2008KO EKAINAREN 16KO BATZAR NAGUSIA: BILERA-AKTA

Bertaratuak:

- Pilar Bilbao Bilbao, Elkarteko lehendakariordea.
- Cecilia Ceballos Burgaicea, idazkariordea
- M<sup>a</sup> Jesús Otaduy, elkartekidea.
- Juan Zuazagoitia Nubla, elkartekidea
- Miren Ortega Etcheverry

2008ko ekainaren 16an, 15:00etan, Vitoria-Gasteizen egin da “EUSKO JAURLARITZAKO ETA OSAKIDETZAKO LANGILEEN ELKARTASUN FONDOA, ZER0,7” elkartearen Batzar Nagusia. Arestian aipatutakoak bertaratu dira, honako gai hauek aztertzeko.

### Aztergaiak:

1. 2007ko kontuak eta jardueren memoria onartu. (1. eranskina)
2. Galderak eta eskaerak.

Batzarrari hasiera emateko lehendakariordeak adierazi du ekitaldia bukatu eta sei hilabeteko epean onura publikoko izaera duten elkarteek dokumentu hauek aurkeztu behar dituztela Elkartearen Erregistroan: aurreko ekitaldiko kontuak eta gauzatu dituzten jardueren memoria; biak ere Batzar Nagusiak ontzat emanda. Horrela ezartzen baitu elkartzeko eskubidea arautzen duen 1/2002 Lege Organikoaren 34. artikulua.

Ondoren, kontuak aurkezten ditu. Ohi bezala, bazkideen kuotek eta kuota horiek sortutako interesek osatzen dituzte diru-sarrerak. Gastuak, aldiz, GKEek aurrera eramaten dituzten proiektuen ordainketak dira, urteroko bozketan bazkideek onartzen dituzten proiektuenak, hain zuzen.

Urteko jarduerak labur-labur komentatu ondoren, botoen kontaketa egin da. Ondoren laburbiltzen dira bozketaren emaitzak.

<b>Memoria eta kontuak</b>	
<b>Baiezkoak</b>	
<i>kopurua</i>	99
<i>% (baliiodunak)</i>	<b>100,0</b>
<b>Ezezkoak</b>	
<i>kopurua</i>	0
<i>% (baliiodunak)</i>	<b>0,0</b>
<b>Baliiodun botoak</b>	99
<b>Baliogabeko botoak</b>	0
<b>Boto zuriak</b>	0
<b>Guztira</b>	99

Beraz, ontzat ematen dira 2007eko kontuak eta jardueren memoria, eta Elkartearen Erregistroan aurkeztuko dira.

Eta beste barik, 16:00etan bukatu da batzarra.

Idazkariordea



Cecilia Ceballos Burgaicea

O.E. Lehendakariordea



Pilar Bilbao Bilbao